

IXA TALDEAREN TRESNA BERRIA DOAN ESKURA DAITEKE ETA WINDOWS-EKO OFFICE 2000N ERE INTEGRATZEN DA

Xuxen zuzentzailearen bertsio berria prest da, Hiztegi Batuarekin osaturik

■ Zuzentzaile ortografikoaren

lexikoa sei hilean behin berritzen dutenez, Euskaltzaindiaren azken erabakiak sartzen segituko dute

■ Macintosh-erako bertsioa lantzen

ari da Ixa taldea, eta urtea bukatzerako eskuragarri izango dela espero dute


■ Datorren urtean Office10

merkaturatzekoa da Microsoft, eta Xuxen zuzentzailea produktu berriarekin batera banatuko da

I. Murnia Uria / Donostia

XUXEN euskarazko zuzentzaile ortografikoaren bertsio berria (Xuxen 2.2). Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuarekin osatua eta Windowseko Office2000rako egokitua, prest da dagoeneko. EHUko Informatika Fakultateko Ixa taldeak egina da zuzentzailea eta bi webgunetan jarri dute eskuragarri, doan: EHUrean (www.sc.ehu.es/xuxen-e.htm) eta Eusko Jaurlaritzarenean (www.euskadi.net/euskara_hizt/indice_e.htm). Macintosh-erako bertsioa, gainera, oso aurreratua dute, eta urtea betetzerako prest izango dela espero du Ixa taldeak.

Xuxen zuzentzailearen bigarren bertsioa izako uztaillean aurkeztu zuten. Office 97an integratzen zen eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikaren laguntzarekin, doan eskuratzeko moduan jarri zen Interneten. Ixa taldeko ordezkari Inaki Alegriak EGUNKARIARI azaldu dionez, hiztegia sei hilabetean behin berritzeko konpromisoa hartu zuten orduan, eta Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuarekin osatu duteneko hau hirugarren berritzea da. Zuzentzailearen abiaduran aldaketarik ez da izan bertsio berri honetan. Xuxen 2 egin genuenean asko hobetu



Xuxen eskuragarri duen webguneko irudi bat.

genuen», dio Alegriak. «Arazorik ez du alde horretatik, oso abiadura handia du: mila hitz segundoko».

Lexikoa 78.000 sarrera ditu orain Xuxen-ek, baina horrek ez du esan nahi hitz kopuru hori ezagutzen duenik zuzentzaileak: «Hitzak ia infinituraino ezagutzen ditu. Lexikoa 78.000 sarre-

ra izanik, bere flexio guztiak aintzat hartzen dituenek, izugarri kopuru handiak zuzentzen ditu; milloika», dio Alegriak. Izan ere, beste hizkuntzetako zuzentzaile ortografikoen antzekoa da Xuxen, «baina erabiltzaileen hiztegiaren malguagoa da». Hiztegia sei hilean behin berritzen jarraituko du Ixa

taldeak—Euskaltzaindiaren azken erabakietara egokitu zuten, eta gainera, toki eta pertsona izenen zerrenda osatzeari ekingo diote. «Aro honetan jauzi handi bat egin nahi dugu», dio Alegriak. «Horretarako EGUNKARIAREN elkarlanean hastekoak gara. EGUNKARIAREN corpusetik abiatuz egitea da asnoa».

Gramatika

Zuzentzaile ortografikoa berritzen joatearekin batera, gramatika zuzentzailea ere prestatzen ari da Ixa taldea. Ikerkuntza fasean daude orain, eta oraindik «beste urtebete edo urte pare» behar izango dute tresna berria kaleratzeko.

Office 10ekin banatuko da

Xuxen-en zabalkundearen aurrerapauso handia ematekotan dira, gainera. Microsoft-ek Office 10 aterako du 2001. urtean, eta produktu berriaren barruan banatuko da Xuxen zuzentzailea, Alegriak aurreratu duenez. Gaur egun euskarazko zuzentzaile ortografikoak bost mila erabiltzailetik gora ditu.

Ixa taldean hogei lagunetik gora ari dira lanean, Xuxen zuzentzailearekin batera. Ixa taldeak lankide ditu, gainera, Hizkia enpresa—zuzentzailea Office formatura egokitzuten die—eta UZEI—hizkuntzalaritza alorrean—. Gipuzkoako Diputazioetik, Euskadi-Akitania hitzarmenetik eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sai-lordetzatik jaso izan dituzte laguntzak.

ezaugarriak

Etengabe berritua

■ Honako hauek dira Xuxen 2.2 zuzentzaile ortografikoaren ezaugarrietako batzuk:

Doakoa • Interneteko bi helbidetan doan eskura daiteke: www.sc.ehu.es/xuxen-e.htm eta www.euskadi.net/euskara_hizt/indice_e.htm.

Windowserako • Office97rako eta Office2000-rako egokitua dago. Macintosh-erako zuzentzailea urtea bukatzerako izango da prest.

Abiadura • Segundoko mila hitz zuzentzeko gaitasuna du.

78.000 sarrera • Lexikoa 78.000 sarrera ditu, baina milioika hitz ezagutzen ditu. Morfologian oinarritutako zuzentzailea da, eta, deklinatu gabeko hitzez gain, flexioa, eratorpenak eta hitz elkarketak ezagutzen ditu.

Sei hilabete behin berritu • Hiztegia sei hilabete behin berritzen ari dira izako uztaillean Xuxen II aurkeztu zutenetik. Hiru aldiz berritu dute oraingoz.

Hiztegi Batua • Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuarekin osatua dago, eta Akademiaren erabakiekin berrituko da etengabe.

IRAGARKIA

Udalaren leinetako zergadun guztiak jakinarazten zaie, Udaltzatik, urtaren 26an izandako bilkuran eta uztailaren 5eko, 11, 12, 13, 14 eta 16-ko Foru-Arreutan xedatutakoaren arabera, gelaingo osoz 2001. Uterako ondoren zerrendatzen diren Zerga, Tasa eta prezio publikoen Ordenamiza Fiskalen aldatzea erabaki zuela.

- Hantura Ekonomikoen gaineko Zerga
- Trakzio Mekanikoko dirigialuen gaineko Zerga
- Lurzorri hiritaren gehitzearen gaineko Zerga
- Zerbata Publikoak eskainta eta iharduerak burutzeko tasak
- Zerbata Publikoak eskainta eta iharduerak burutzeko tasak
- Zerbata Publikoak eskainta eta iharduerak burutzeko tasak
- Udaltzain publikoaren erabileraren gaineko Zerga
- Udaltzain publikoaren erabileraren gaineko Zerga

Hiruak erabakiak eta horietan izandako iradailutako espedienteak www.uztegiak.ehu.es dirira, Gipuzkoako Ordenamiza Leialdearen arabera uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.1 artikuluan xedatutako betez, interesatuek, 30 lanegun epearen barruan GAOn iragarkia argitaratu eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, idazkaritzako Udaltzainaren bidez, egokitzat jotzen dituzten erabakietatik gero informazio berriaren arabera, in-liko errekamaziorik jaso gabe, buruzko akordioak, bestelako erabakirik, hiru beharrik izan gabe, behin betiko onartutako joko dira.

Arasatzen, 2000ko urtarraren 27an, ALCATEA.



Alkatotza ■